



Bat Gara

Ipar Euskal Herrian 2022tik 2024ra eramán den Bagira prozesuaren emaitzan aipatzen da abertzaleen helburua herriari boterea itzultzea dela, eta adierazten da, boterea itzultzeko, herriari burujabetza maila maximoa emanen dioten instituzioak herriari eskaini behar zaizkiola. Zehazten da ere, herri baten burujabetza maila maximoa Estatu independente baten bitartez lortzen dela. Horrez gain, mugimendu abertzalea demokraziari atxikia dela goraipatzen da. Prozesu hau bukatu zen gogoetak sakondu beharko zirela adieraziz.

Horiek horrela, prozesu horretan parte hartu zuen Nafarroa Behereko abertzale talde batek bultzaturik, irailaren 8an, Donibane Garazin, Ipar zein Hego Euskal Herriko hainbat eskualdetatik etorritako hogeit hamar independentistek prozesu berri bat abiatu dugu. Bat Gara prozesu berri hori Euskal Herri osoan eramánen da, nahi duten euskal herritar guzietan irekia.

Bat Gara prozesuan, independentistek ondoko galderari erantzun diogu:

Euskal nazioarentzat nahi dugun Estatu euskaldunak nola gauzatu luke egiazko demokrazia?

Gogoetan, kontzeptuen definizio adostuak erabiliko ditugu. Hasteko, hauek:

Euskal: euskarari dagokiona eta Euskal Herriari dagokiona (Euskaltzaindiaren hiztegia).

Independentzia: bizi den lurraldean, beste kolektibitate baten aginpidearen mende ez dagoen kolektibitatearen egoera, barne eta nazioarteko subiranotasunean gauzatzen dena eta Estatuaren unitate politikoa dagokiona (Elhuyar hiztegia).

Estatu: unitate politiko burujabea den nazioa, nazio zatia edo nazio multzoa (Euskaltzaindiaren hiztegia).

Nazio: bere batasunaren ezagutza eta elkarrekin bizitzeko nahia ezaugarritzat dituen gizataldea (Euskaltzaindiaren hiztegia).

Burujabe: askea, bere buruaren jabe dena, inoren mende ez dagoena (Euskaltzaindiaren hiztegia).

Demokrazia: boterea herriarengan datzala dioen doktrina politikoa (Elhuyar hiztegia).

Gogoeta abiatzeko, zehaztuko dugu zein diren egiazko demokrazia izaitzeko oinarritzko arauak: zein arau behar dira boterea egiazki herritarren eskuetan izaitzeko?

Ondotik, boterea egiazki herritarren eskuetan izaitzeko, lokaletik nazionalera instituzio politikoak nolakoak izan behar diren zehaztuko dugu.

Bat Gara prozesuaren bilkurak

Bat Gara prozesua hasieran dago. Lehenbiziko bilera bat egin zen Donibane Garazin, 2024ko irailaren 8an. Prozesuaren helburua da, kontzeptu batzuk argitzeaz eta argi uzteaz gain, demokraziaren eta euskal Estatu independentearen arteko loturaz hausnartzea eta hori lortzeko bidean lan egitea. Gai honetaz axola duten guztiak dira ongietorriak prozesura, askatasunaren alde non edo non ari diren eta aritu nahi duten guztien bilgune bat sortzera baitator.

Ondoko asteetan, bilkura publikoak antolatuko ditugu, eskualdez eskualde, gogoetan esku hartu nahi duen orori aukera eskaintzeko.

Herriz herriko bilerak

- **Iruñea:** LABAn, azaroaren 2an, larunbatez, 18:00etan.
- **Larzabale:** Espelletenian, azaroaren 9an, larunbatez, 10:30ean
- **Baiona:** Epaiskan, azaroaren 9an, larunbatez, 15:00etan
- **Gasteiz:** Sumendi gelan, azaroaren 12an, asteartez, 18:00etan
- **Baigorri:** Bixentaenian, azaroaren 15ean, ostiralez, 18:30ean
- **Hendaia:** Enbata gaztetxean, azaroaren 16an, larunbatez, 11:00etan
- **Donostia:** Okendo Kultur Etxean, azaroaren 16an, larunbatez, 10:30ean
- **Hazparne:** Eihartzean, azaroaren 23an, larunbatez, 15:00etan
- **Atharratze:** Prefostan, azaroaren 30ean, larunbatez, 18:30ean
- **Bilbo:** Kafe Antzokian, azaroaren 30ean, larunbatez, 10:30ean.

Biltzar Nazionala

Durangon, abenduaren 7an, larunbatez, 12:00etan

